

HASPERENA: JATORRIAK, IRREGULARITATEAK ETA HORIEN AZALPENA

1. HASPERENKETAREN HISTORIA.

- Hasperenketa eta leherkari hasperendunak ez dira gauza bera. /ph/ ez da /p/ + /h/.

- Hasperenketa AE-n:

- (a) Lekukotasunen arabera noizbait orokorra izan da euskararen eremu guztian.
- (b) Hasperenketa bazegoen AE-ren inbentarioan (/m/ eta /f/ ez). Azken 60 urtetan gutxienez estatus fonemikoa du.
- (c) Gavel (1920): “/h/-a ez da beste fonemen pareko”. Luchaire-ren lana (1875) ezagutzen zuen: “Akitanieran zerbait badago, hasperena da. Lekukotasun ugari dago, baita Erdi Aroan ere”.

- Hasperenketaren lekukotasunak:

- (a) Luchaire: “Lekukotasunak daude Akitanieran eta Erdi Aroan”.
- (b) M. Pidal + historialari gehiago: “Errioxan eta Burgosen beste hainbat lekukotasun, non /h/ sistematikoki ageri den”. Gaskoiek “elforriaga” → <f> = /h/.
- (c) Hegoaldean lekukotasun gutxi:
 - (1) Nafarroa ekialdea (Lerga): 3 hitz (I. mendea): “umme”, “sahar”, “abisunhari”.
 - (2) Araba: “helatsa”, “selatse”.

- Hasperenketaren jatorriaz; Trask (1997):

- (a) Euskaraz /h/-ak ez dira etimologikoak. Erregelak ematen ditu / h/ nondik sortzen den esateko, azentuarekin lotuak. Hau egia balitz, hasperenaren fonematasunaren aurkako froga izango litzateke. Ez du lortzen.
- (b) Bi /h/ mota bereizi:
 - (1) Hitzak bereizteko balio dutenak: hasperenak balio etimologikoa du, /h/ zaharra. “ari” / “hari” / “ahari”, “sei” / “sehi”.
 - (2) Esanahia bereizteko balio ez dutenak: ez dira etimologikoak. “behar”.

- Hasperenketaren funtzioa:

- (a) Trask: Kokagune jakin batzuetan azentuak hasperena sartzea eragiten du. Azentua → /h/.
- (b) Beste: Kokagune jakin batzuetan azentuak hasperena erortzea eragiten du.
- (c) Beste: Hasperenak hiatoak ekiditeko balio du. /h/ ez da hutsetik sartzen, beste hots baten tokian dago: “ahate”, “ohore”...

- ‘Refranes y Sentencias’-eko lekukotasunak:

- (a) 1596koa den arren, euskara zaharragoa islatzen du.
- (b) Hasperenketa agertzen da, baina ez fonologikoa. Grafia da, <h>.
- (c) “ueuo” = “vevo” vs. “huevo”. Bi formak bereizteko grafiaren baten beharra.

2. HASPERENAREN KOKALEKUA.

- (1) Hitz hasieran (#__): “herri”, “haur”...
- (2) Bokal artean (V__V): “ahate”, “ohe”...
- (3) Diptongo eta bokal artean (Dipt__V): “oihan”, “leiho”...
 - * Alderantziz, gutxitan (V__Dipt): “lehiatu”, “lehoi”... (erregelaren aurka).
- (4) Ozen ondotik (“lh”, “nh”, “rh”, “rrh” __): “elhe”, “senhar”, “erhi”, “urrhe”...
 - * Problematikoak: /h/ iparraldean gorde da, baina dardarkariekin arazoak daude. /hr/ > /h/. Talde hauek eterosilaboak dira eta hau aspalditik dakigu: “abisun.hari” (/n/ eta /h/).
- (5) Herskari leherkari hasperendunak (“ph”, “th”, “kh”). Ez dira etimologikoak, ez baitute sistema fonologikoaren berreraiketan unitate propiorik eskatzen. Hizkuntza gehienetan kontsonante hasperendunak ahoskabeak dira.

3. HASPERENAREN ETA AZENTUAREN ARTEKO LOTURARANTZ.

- XVI. mendetik egun arte...hasperena agertzeko baldintzak:

- (a) /h/ ez da ageri bigarren silabatik eskuinerago. Bi aukera: 1. edo 2. silaban.
- (b) Hitz bakoitzean /h/ bat bakarrik.
- (c) “*sh”, “*mh”.

- Hasperenketaren galera:

- (a) Bi egotetik > bat egotera: “*h.....h.....” > “Ø.....h.....”. “hilotz” > “ilhotz”.
- (b) Bat egotetik > ez egotera. /h/-aren galera Nafarroa Garaian hasi zen. Ez zuten segurtasun fonologikorik: “uarte” / “huarte” / “uharte”, “ualde” / “hualde” / “uhalde”.
- (c) Non? Lapurdiko kostaldea aipagarri. XVI-XVIII. mendeetako lekukotasunak ikusita, /h/ bazela ikusenez; XIX-XX. mendeetan galdu.

4. /H/-AREN BALIO ETIMOLOGIKOAZ ZENBAIT ARGUDIO.

- Hipotesia: Gaurko /h/, AE-n ere /h/.

- Mitxelenak /h/ etimologikorako lau kasu:

- (1) Hitz hasierako leherkari bortitzak > #h-. “Halsco” / “Talsco”, “Harri” / “*Kar”.
- (2) VnV > VhV: maileguekin eta jatorrizko hitzekin.
- (3) “f-” > “h-”. “forma” > “horma”, “*afotz” > “aihotz”. Zail da jakiten “f” > “h” euskararen eman den edo gaskoieratik horrela etorri zen.
- (4) “h” > “h”. AE-tik gorde den /h/: “hortz”, “behi”...

- Hauetaz gain badira...

- (a) Etimologikoak ez diren /h/-ak (batez ere leherkariei dagokienez). “harroka” = “harri” + “roca”, “hezkabia” = “hatz” + “scabi”.
- (b) Azalpenik gabeko /h/-ak. “arena” > “harea”: “-n-” > “-h-” eman izan balu “*areha” litzateke. Agian /h/ bazegoen eta ezkerretara mugitu zen: “arena” > “areha” > “harea”.
- (c) Maileguetako /h/-ak. Maileguetan hasperenketa gehitzeko jatorrizko formetan ere azalpena behar dugu, maileguak jatorrizko formetara egokitzen baitira eta ez alderantziz.

- Mitxelenaren hipotesia:

/h/ asko /n/-tik datoz. “arena” > “harea”, “offende” > “hoben”.

- Jatorrizko lexikora bueltatzean, gauzak interesgarri:

“harea”, “herio”, “hedoi” = h.VCV.V → Badira adibide gehiago eta ez dira maileguak.

- Grassmann-en legea: Hitz batean ezin dira bi hasperen egon, bat desagertu egiten da.

5. HASPERENKETAREN KOKALEKUA MAILEGUETAN.

- Hasperenketaren eta azentuaren arteko harremana: azentu osteko /h/ > Ø.
- Mitxelena: “badira zenbait /h/ arrazoi segmentalik gabe sortuak, batez ere hitz hasieran”.
 - (a) Gehienak maileguetan ematen dira, ez jatorrizko lexikoan. Ahulezia handia fenomenoaren azalpenean. /h/ gehitu bada maileguetan, zergatik ez jatorrizko lexikoan?
 - (b) “harea”, “horma”, “harroka”, “hezkabia”... /h/ hauek /n/ batetik datoz.
- Delako /h/ hauen ugaritasuna konparatibista maltzuraren artean erabilia izan da:
 - (a) Schuchardt: V > V₁hV₁. Edozein bokal geminatu bikoitza + tartean /h/ sartu. “len” > “leen” > “lehen”, “ate” > “aate” > “ahate”.
 - (b) Mitxelenak gogor kritikatu zituen Schuchardt-en saioak.
- Zergatik forma batzuk /h/ eta besteek ez?
 - (a) “i.ba.i” > “i.ba.hi” > “hibai”, “arena” > “areha” > “harea”. Hasperenketaren ezkererako mugida.
 - (b) “ballena” > “balena” > “balea”. Ez dago mugidarik, /h/-k ez bailuke ezkerreko mugitzeko lekua aurkituko. Eta “*baleha” ezin liteke izan, /h/ 3. silaban baitago.
 - (c) “leone” > “lehoi”. “*le.o.he” beharko luke, baina 3. silaban ezin liteke, lehenengoa okupatuta dago, eta aukera bakarra bigarren silaba da: “le.ho.i”.

6. `ARRAZOIGABEKO` HASPERENAZ.

6.1. Hitz hasieran.

- (1) “hoge”:
 - (a) Jendeak mailegu zeltiko gisa ikusi (“ugeint” > “hoge”).
 - (b) Arazoak ditu euskal fonemarekin alderatzeko.
 - (c) Erdi Aroan soilik aurkitzen da. Euskal forma kontaktu ostekoa da (1200 urte geroagokoa). “*wi-kinti” > “niginti” > “ugeint”.
 - (d) Euskal formaren bilakaera: “bor-geni” > “*bor gehi” > “*or gehi” > “*horgei” > “hoge”.
- (2) “hedoi”:

(a) “edoni” > “hedoi”. CVC-CVC.

(b) 1. Eskuineko eta ezkerreko C-ak erori: V-CVC

2. “n” > “h”

3. /h/ ezkerretara mugitu.

(3) “hezur”:

(a) “*enazur” > “*ehazur” > “*heazur” > “hezur” / “hazur”.

(4) “haitz”:

(a) “*anetz” / “anitz” > “*ahetz” / “ahitz” > “*haetz” / “haitz” > “haitz” / “haitz”

(b) Irigoyen: “enuskara” > “ehuskara” > “heuskara” > “euskara”.

(5) “heuragi”: “*eradunegi” > “*erauegi” > “heuragi”.

(6) “hagin”: “canicu” > “akihu” > “aihun” > “hagiun” > “hain” (ald. handiegia).

(7) “hoben”: “offendere” > “obehen” > “hoben”.

(8) “hautatu”: “adapta” > “hauta”.

(*) Hitz asko dira /h/ hirugarren silabatik bigarreneira / lehenengora mugitu dutenak. Bestalde, euskaraz bazen joera /h/ hitz hasieran agertzeko, mugimenduaren indarragatik. Bazen joera lehen silaban C-ak edukitzeko, ez zuten hitza biluzik utzi nahi.

6.2. Hitz barnean.

- Silaba zaharren egitura hobe mantendu da _h_ mantendu duten hitzetan. Adibidez, “auntz” vs. “a.huntz” = silaba zaharra bereizteko balio digu /h/-ak.

- Trask: /h/ sartu izan da...

(a) Silaba bereizteko.

(b) Hiatoak apurtzeko (“behar”, “bihur”...).

- Hiatoak apurtzeko, lehen /g/ baliatzen zen euskalki gehienetan. “-h-” etimologikoa da, eta “-g-” /h/ galera ostekoa.

7. HASPERENKETAREN JATORRIAZ OHAR BAT.

- Mitxelena: “Diptongo ondoko /h/-ak ugaldtu egin direla iruditzen zaio”. “Lehen /h/ horiek ez zeuden, gehitu egin dira”.

- Baina...

- (a) “Sa(i)hets”:
 - “Samur”, “sakon”, “samin”... /sa-/ da aurrizkia, ez /sai-/.
 - “sa(i)” + “hets” → ez da /h/ gehitu, /i/ baizik!
- (b) “eihar”: “enar” > “*ehar” > “eihar”. Hemen ere /i/ gehitu da.
- (c) “eiho”: “eno” > “eho” > “eiho”. Hemen ere.

8. HASPERENAREN KOKALEKUA.

- Hiru garai:

- (1) AE I. garaia: [hVC] → Egitura monosilabikoa.
- (2) AE II. garaia: [#__-n /h/-rik ez] → Garai silabikoa. “*haker”.
- (3) EA III. garaia: Grassmann-en legea. Lehenengoaren eraginez bigarrena disimilatu. “aker”.

9. AZENTUAREN ETA HASPERENAREN ARTEKO HARREMANA.

- Mitxelena: “azentuaren eta hasperenaren artean harremana dago”.

- (a) Hasperenaren garapenarekin erroaren garapena ikus daiteke.
- (b) Hasperenak erroetan daude soilik.
- (c) Erro batean ezin da hasperen bat baino gehiago egon. hasieran erro guztiak monosilabikoak. Bisilabiko izatera pasa zirenean ere, erro bakoitzean /h/ bakarra.

- Martinet vs. Mitxelena: azentuari buruzko iritzi desberdina.

- (a) Martinet: Euskal azentua lehen silaban dago.
- (b) Mitxelena: Euskal azentua bigarren silaban dago.

- Mitxelena:

- (a) Hasperenak erori egin dira azentuaren eskuinetara geratu direnean.

- (b) 4. silaban azenturik ez dagoenez, /h/-aren kokalekua mugatu. Azentua ezkerretarantz joan den heinean, hasperenaren kokalekua mugatu da; beti azentuaren ezkerrean, ez erortzeko. “ba.lé.a” (“ba.lé.ha” → /h/ galdu), “le.ho.í”, “ha.ré.a”...
- (c) Baziren hasperena 3. silaban ere, ez ordea 4. silaban: “herio” < “*e.ri.ho”, “jario” < “*e.da.li.no” (“n” > “h” ez zen gertatu).
- (d) Kontsonante hasperendunek ez digute balio berriak direlako.